



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen Foru Arauan eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, zerga eskatzen du honako ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua.

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua.

Hauexek dira Zergaren zerga-egitateak:

1. Bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna, direnak direla ibilgailuen mota eta kategoria.
2. Zirkulaziorako gai den ibilgailuzat joko da erregistro publiko egokietan matrikulatu dena, baja ematen ez zaion bitartean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo-matrikula dutenak ere zirkulatzeko gai diren ibilgailuzat joko dira.
3. Jarraikoak ez daude Zergaren kargapean:
 - a) Antzinasuna dela-eta erregistroan baja emanda egonik, aparteko kasuetan erakustaldietan, lehiaketetan eta lasterketetan ibiltzeko baimena jaso lezaketanak, horretara mugaturik daudela.
 - b) Trakzio mekanikodun atoiak eta erdi-atoiak, zama erabilgarria 750 kg. baino gutxiagokoa dutenak.

III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

4. artikulua.

1. Zergatik salbuetsita egongo dira:

- a) Hiritarren defentsa edo segurtasunera atxikitako Euskal Autonomia Erkidego, Bizkaiko Lurralde Historiko eta tokiko erakundeetako ibilgailu ofizialak.
- b) Ordezkaritza diplomatikoen, bulego kontsularren, agente diplomatikoen eta karrerako funtzionario kontsular egiaztatuen, dagozkien herrialdeen mendeko direnen, ibilgailuak, kanpotik identifikatuta eta bere hedapen eta mailan elkarrekikotasuna badago.
Era berean, Espainiar Estatuan bere egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen eta estatutu diplomatikoa duten bere funtzionario edo kideen ibilgailuak.
- c) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan xedatutakoaren arabera horrela jasota duten ibilgailuak.
- d) Osasun laguntzara edo zaurituak edo eriak lekualdatzera zuzenean zuzendutako anbulantziak eta gainerako ibilgailuak.
- e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskinen A letran adierazitakoak, baldin eta desgaitasuna duen pertsona baten izenean matrikulatuta badaude.

Halaber, salbuetsita daude ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak, ezinduak erabiltzeko baizik ez direnak. Salbuespen hau inguruabar horiek hala irauten duten artean aplikatuko da, eta aplikatu ere urrituek eurek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei aplikatuko zaie.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondorioarako, hauexek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

- a') %33 eta %65 bitarteko desgaitasun-gradua onartuta dutela mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak; halakotzat joko dira minusbalotasun gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskinen baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dituztenak.
- b') %65eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

Hemen aurreikusitako salbuespenak izaera arautukoak dira eta eskatu beharrekoak izango dira. Eskudun den udal organoak emandako administrazioeko egintza adieraziaren bidez eman beharko zaizkie beharrezko baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboak eta hauek eskatu ondoren. Eskabide honetan bere ibilgailuaren ezaugarriak, bere matrikula eta onuraren kausa adieraziko dituzte. Eskabidearekin batera hurrengo dokumentu hauek aurkeztuko dituzte:

- Gidabaimenaren fotokopia.
 - Ezintasuna egiaztatzen duen ziurtagiria eta, edukiz gero, mugikortasunaren eskasia-egoera egiaztatzen duena, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskudun organoak emanda. Eta ez da titulu nahikoa izango baloratzeko ekipo egokiak emandako irizpen tekniko-fakultatiboa.
 - Ibilgailua elbarriak bakarrik erabiltzera zuzenduta egongo delako zinpeko deklarazioa.
- Udal Administrazioak berau deklaraturik, bere emakida egiaztatzen duen dokumentua emango da.

f) Hiribarruko garraio publikoaren zerbitzura zuzendu edo atxikitako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, betiere bederatzi plaza baina gehiagoko edukiera, gidariarena barne, baldin badute.

g) Nekazaritzako Azterketako Txartela duten traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makinak. Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin behar dute, eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia azaldu behar dituzte. Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztatzeko agiria emango zaio interesatuari.

Oro har, salbuespena emanez gero, eskatu den urtearen ondoko ekitaldian sortzen ditu ondorioak; ez du atzeraeraginik. Hala ere, likidazioa irmoa izan aurretik eskatzen bada, ezinbestekoa da zerga-zorra sortu den egunean aplikatzeko betekizunak betetzea.

2.- Honako hobari hauek ezarri dira:

a) Zergaren kuotaren % 100eko hobaria izango dute indarrean dagoen Ibilgailu Historikoen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera historikotzat jotako ibilgailuek, baldin eta hala jasota badaude Probintziako Trafiko-Buruzagitzako Ibilgailu Historikoen Erregistroan.

Hobari hori jaso ahal izateko, ibilgailuen titularrek hura ematea eskatu behar dute, eta ondorioak sortzen dituen zergaldiaren aurreko ekitaldian aurkeztu behar dute dagokion eskabidea behar bezala sinatuta, honako agiri hauekin batera:

- Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren edo Atzerritarren Identifikazio-Zenbakiaren fotokopia.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

- Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia eta administrazio eskudunak emandako agiri bat, izaera historikoa duela eta Ibilgailu Historikoen Erregistroan inskribatuta dagoela jasotzen duena.

b) Gutxi kutsatzen duten ibilgailuek hobaria izango dute zergaren kuotan, portzentajeari eta epeari dagokienez, ezaugarriak kontuan hartuta, betiere, idatz-zati hauetako batean ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

b.1.) Motor elektrikoa edota isuri nuluak dituzten ibilgailuek %95eko hobaria izango dute zerga-kuotan, mugarik gabeko epean.

b.2.) Motor hibridoak dituzten ibilgailuek, %75eko hobaria izango dute zerga-kuotan, lehen aldiz matrikulatzen direnetik hasita lau ekitalditan zehar.

Hobari hori eskaripekoa da, eta egiaztatu egin behar da ibilgailuak eskatzen diren ezaugarriak betetzen dituela, ibilgailuaren Ezaugarri Teknikoen Txartelaren bitartez; txartel horretan agertzen ez badira, ezaugarri horiek jasoko dituen eta horretarako eskumena duen administrazioak igorriko duen agiri baten bidez frogatu beharko da.

Hobari horrek ibilgailua matrikulatu den zerga-aldian izango du eragina, baldin eta eskabidea zergaren autolikidazioa egiteko garaiz aurkezten bada, eta eskabidea ibilgailua matrikulatu ondoren aurkezten bada, hura onartu eta hurrengo zerga-aldian izango du eragina.

Hobari hau ez da bateragarria izango ibilgailu berberak Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergan izan dezakeen beste edozein zerga-onurarekin.

c) Hobaria izateko eskubidea izango dute, artikulua honetan arautzen den zenbateko eta baldintzetan, 16 zaldi fiskal baino gutxiagoko potentzia eta bost eserleku edo gehiago dituzten turismoak, baldin eta haien titularra indarrean dagoen legediaren arabera familia ugartzat jotzen den familia bateko kide bada, betiere familia unitateko kide bakoitzeko errenta maila 9.000,00 € baino gehiagokoa ez bada. Kide ezgaituak birritan zenbatuko dira. Errenta maila ezartzeko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpen agirian, zerga oinarri orokorra izeneko laukian, agertzen den kopurua kontuan izango da.

Familia bakoitzeko ibilgailu bakarrari emango zaio hobaria.

Hobari hau ez da bateragarria izango ibilgailu berberak Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan izan dezakeen beste edozein zerga-onurarekin.

Hobari honetaz baliatu ahal izateko, subjektu pasiboak eta familia-unitateko gainerako kideek Amorebieta-Etxanon erroldatuta egon beharko dute beren ohiko etxebizitzan, familia ugarien araudiak aurreko ahaideak banantzen diren kasuetarako ezartzen duenari kalterik egin gabe, eta Udalak administratiboki onartuko duen ereduari jarraituz, behar bezalako eskabidea aurkeztu beharko da, behar bezala sinatuta, eskabideak eragingo dion zerga-aldiaren aurreko ekitaldiko abenduaren 1a edo hurrengo egun balioduna baino lehenago, eta eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Subjektu pasiboaren IFZ edo AIZren fotokopia.

- Bizkaiko Foru Aldundiak igorri duen eta indarrean dagoen legediaren arabera baliozkoa den Familia Ugariaren Tituluaren fotokopia.

- Familia unitateko kide bakoitzak egindako azken errenta aitortpenaren kopia, errenta aitortpena aurkeztu beharrik ez duela adierazten duen agiria edota sarrerarik ez duela jasotzen dioen zinpeko aitortpena.

Hala eta guztiz ere, behartuta daude hobari horren baldintza eta betekizunen inguruan gerta daitezkeen aldaketan berri ematera, eta aldaketa horiek nolnahi ere, gertatu diren ekitaldian ez, hurrengoan izango dute eragina.

**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Administrazioak beretzat gordetzen du hobaria onartu eta emateko behar diren baldintzak betetzen diren ala ez ofizios egiaztatzeko eskubidea, eta subjektu pasiboak hobaria eskuratzeko eskubidea duela egiaztatzeko behar diren agiri guztiak aurkez daitezzen eskatzekoa ere bai.

Hobari-portzentajea zergaren sor-tzapena gertatzen den unean zehaztuko da, legez ezar daitekeen eta behar bezala egiaztatu den familia ugariaren kategorian kontuan hartuta, bai eta familiaren turismoak zer nolako zerga-potentzia duen kontuan hartuta ere, koadro honen arabera:

Zerga-potentzia	Hobaria	
	Familia ugari berezia	Familia ugari arrunta
11,99 zaldi fiskaleraino	% 30	% 15
12 - 13,99 bitarteko zaldi fiskalak	% 20	% 10
14 - 15,99 bitarteko zaldi fiskalak	% 10	% 5

IV. SUBJEKTU PASIBOAK**5. artikulua.**

Zerga honen subjektu pasiboak dira martxoaren 10eko 2/2005 Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluan ageri diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, zirkulazioko baimenean ibilgailua beraien izenean agertuz gero.

V. KUOTA**6. artikulua.**

1. Zerga tarifa-taula honen arabera eskatuko da:

POTENTZIA ETA IBILGAILU MOTA	GUZTIRA €
A) TURISMOAK	
8 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	25,50 €
8 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak	68,54 €
12 eta 13,99 zaldi fiskal bitartekoak	120,71 €
14 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak	169,13 €
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartekoak	224,88 €
20 zaldi fisikaletik aurrera	281,40 €
B) AUTOBUSAK	
21 plaza baino gutxiagokoak	167,41 €
21 plazatik 50era	238,46 €
50 plaza baino gehiagokoak	298,06 €
C) KAMIOIAK	
1.000 kg-ko karga erabilgarri baino gutxiagokoak	85,00 €
1.000 kg eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarrikoak	167,41 €
2.999 kg-tik gorako eta 9.999 kg bitarteko karga erabilgarrikoak	238,46 €
9.999 kg-ko karga erabilgarri baino gehiagokoak	298,06 €
D) TRAKTOREAK	
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	35,52 €
16 eta 24,99 zaldi fiskal bitartekoak	55,84 €
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	167,41 €
E) TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN ATOIAK ETA ERDI-ATOIAK	
1.000 kg-ko karga erabilgarri baino gutxiagokoak	35,52 €

**Amorebieta-Etxanoko Udala**
Bizkaia

1.000 kg eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarrikoak	55,84 €
2.999 kg-ko karga erabilgarri baino gehiagokoak	167,41 €
F) BESTELAKO IBILGAILUAK	
Ziklomotorrak	11,45 €
125 zentimetro kubikorainoko motozikletak	11,45 €
125-tik gorako 250 zentimetro kubikora arteko motozikletak	15,21 €
250-tik gorako 500 zentimetro kubikora arteko motozikletak	30,48 €
500-tik gorako 1.000 zentimetro kubikora arteko motozikletak	60,89 €
1.000-tik gorako zentimetro kubiko baino gehiagoko motozikletak	121,79 €

2. Ibilgailu-mota zehazteko, arau bidez ezartzen denari jaramon egingo zaio, eta gainera kontuan hartuko dira ondoko arauak ere:

a) Furgonetatzat ondokoak joko dira: pertsonak eta gauzak batera garraiatu ahal izateko moldatutako turismo-ibilgailuak, zenbait eserleku eta kristal kendu zaizkienak, ateen neurriak edota kokaera aldatu, eta bestelako aldaketak egin zaizkienak, baina jatorrizko ibilgailuaren modeloaren ezaugarriak funtsean aldatu gabe. Furgonetengatik, turismoak balira bezala ordainduko da Zerga, euren zerga-potentziaren arabera, ondoko kasuetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago, gidaria barne, garraiatzeko gaiturik badago, Zergak autobusa balitz bezala kargatuko du.

Bigarrena. Ibilgailuak 525 kg.-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badu, Zergak kamioia balitz bezala kargatuko du.

b) Zerga honen ondoretarako, motogurdiak, hiru gurpildun ibilgailuak eta kuartizikloak motor-bizikleta edota motozikletatzat joko dira eta, ondorioz, euren zilindradaren edukieraren arabera ordainduko da Zerga.

c) Makina autopropulstaturatik (autopropulstatutako ibilgailu bereziak eta trakto-kamioiak), alegia, trakzio mekanikoko beste ibilgailu batek gainean edo herrestan eraman gabe herri-bidetik berez ibil daitezkeen makinengatik, traktoreei dagozkien tarifak kobratuko dira.

d) Autokarabanak, zerga honen ondoretarako, turismotzat hartuko dira eta ondorioz, zerga-zaldien arabera ordainduko dute.

e) Quad-ek, euren ezaugarri teknikoen arabera tributatu dute eta desberdina izango da quad motaren arabera. Ondorioz, jarraian adierazten den tarifa taularen arabera zerga aplikatzeko ibilgailuaren azterketa teknikoko txartelean edota ezaugarrien egiaztagirian "ibilgailuarean sailkapena" atalean agertzen diren lehenengo bi digitoak erabakigarriak izango dira:

06-Kuartizikloa: motor-bizikleta edota motozikleta bezala tributatu du, bere zilindradaren arabera.

64-Ibilgailu berezia: traktore moduan tributatu du zerga potentziaren arabera.

03-Ziklomotorea

66-Quad-ATV: traktore moduan tributatu du zerga potentziaren arabera.

3. Ibilgailu artikulatuei dagokienez, Zergak aldi berean eta bereiz kargatuko ditu arraste-indarra duen ibilgailua eta hark herrestan daramatzen atoiak eta erdiatoiak.

4. Edukiera dela-eta matrikulatu beharrik ez duten ziklomotorrak, atoiak eta erdiatoiak zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira Industria Ordezkaritzak horren ziurtagiria ematen duenetik, edo ibilgailua zirkulatu hasten denetik, kasuan kasukoa.

5. Zaldipotentzia fiskala zaldi fiskaletan adierazten da, eta Ibilgailu Araudi Orokorrean, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuaren 11.20 artikulua jarraituz, V. eranskinean agindutakoa kontuan hartuta.

VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

7. artikulua.

1. Zergaldia egutegiko urtea izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Izan ere, horrelakoetan, zergaldia eskuraketaren egunean hasiko da, edo ibilgailuari Trafiko Burutzan baja ematen zaion egunean amaituko da, hurrenez hurren.

2. Zerga zergaldiko lehen egunean sortuko da.

3. Ibilgailuen lehen eskuraketa denean, edo haien bajaren kasuan ere, kuotaren zenbatekoa hilabete naturalen arabera hainbanatuko da, alta edo baja gertatzen den datari dagokiona barne.

Halaber, kuota hainbanatuko da ibilgailua aldi baterako baja emanda badago, lapurtu edo ebatsi dutelako; hori guztia aldi baterako baja dagokion erregistroan jasotzen den unetik hasita.

VII. KUDEAKETA

8. artikulua.

Ibilgailuaren zirkulazio-baimenean ageri den egoitza zein udalerritan dagoen, hango udalaren eginkizunak izango dira ibilgailu horren zerga kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta bai zerga-kudeaketan agindutako egintzak berrikustea ere.

9. artikulua.

Udalak autolikidazio-araubidean eskatu ahal izango du zerga hau.

10. artikulua.

Zerga ordaindu delako frogagarria Udal Administrazioak emandako ordainagiria izango da.

11. artikulua.

1. Trafiko Burutzari ibilgailua matrikulatzeko, zirkulaziorako gaitasunaren ziurtagiria emateko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko eskatzen diotenean, aldez aurretik Zerga ordainduta dutela frogatu behar dute. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago ezer frogatu beharrik.

2. Gauza bera egin beharko dute ibilgailuen titularrek Trafiko Burutzari ibilgailuaren eraldaketaren berri ematen diotenean, baldin eta eraldaketak zerga honen ondoreetarako ibilgailuak duen kalifikazioa aldatu badu, bai eta ibilgailuaren zirkulazio-baimena eskualdatzen bada edo bertan ageri den egoitza aldatzen bada ere.

3. Trafiko-burutzek ez dute ibilgailuen bajei edo eskualdaketei buruzko espedienterik tramitatuko aldez aurretik zerga hau ordainduta dagoela frogatzen ez bazaie.

Matrikulazio berrietan, edo ibilgailuari egindako aldatetek zerga-ondoreetarako kalifikazioa aldatzen dutenean, interesatuek jarraian adieraziko diren agiriak aurkeztu behar dizkiote Udal Administrazioari, Zergaren matrikulari eransteke, 30 eguneko epean, matrikulazioa edo aldaketa egiten den egunetik hasita:

- a) Zirkulazioko baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- c) NAN edo IFK.

12. artikulua.

Salbuespen gisa eta udal erregistroak garbitzeko sistema moduan interesdunak egiazta dezake ibilgailuaren gabezia Lurraldeko trafikoko Buruzagitzan behin betiko bajaren bidez eta agiri frogagarri baten bidez. Kasu honetan udalak egiaztatutako data eta aldez aurretik igorritako ordainagiriak ezeztatzeko ditzake.

VIII. XEDAPEN IRAGANKORRA



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga indarrean jartzen den egunean Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergan mota bateko nahiz besteko zerga-hobariren bat dutenek hobariaz onuratsen segituko dute aipatutako zerga horri dagokionean, hobaria iraungitzen den egunera arte, edo, hobariaren onurak mugaegunik ez badu, 1992ko abenduaren 31ra arte, azken egun hori barne dela.

Ordenantza honen 4.2 artikuluaurreko idazketaren ondorioz onartutako hobariak ibilgailuaren behin betiko baja arte mantenduko dituzte beren ondorioak.

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2003ko urriaren 15ean egindako Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean, eta behin betiko abenduaren 12an. 2004ko.

Aldatu zen lehenengoz, behin betiko 2004ko abenduaren 7an.

Aldatu zen bigarren, 2005eko urriaren 14an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2005eko abenduaren 23an.

Aldatu zen hirugarren, 2006ko irailaren 27an egindako Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2006ko azaroaren 21an.

Aldatu zen laugarren, 2007ko urriaren 25ean egindako Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2007ko abenduaren 14an.

Aldatu zen bosgarren, 2008ko urriaren 17an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2008ko abenduaren 4an.

Aldatu zen seigarren, 2009ko urriaren 16an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2009ko abenduaren 4an.

Aldatu zen zazpigarren, 2010eko otsailaren 25ean egindako Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2010eko apirilaren 21ean.

Aldatu zen zortzigarren, 2011ko urriaren 14an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2011ko azaroaren 29an.

Aldatu zen bederatzigarren, 2012ko urriaren 26an egindako ohiko osoko bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2012ko abenduaren 10ean.

Aldatu zen hamargarren, 2016ko maiatzaren 30ean egindako ezohiko osoko bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2016ko uztailaren 15ean.

Aldatu zen hamaikagarren, 2017ko maiatzaren 26an egindako osoko bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2017ko uztailaren 28an.

2017ko abuztuaren 24an jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki artean